



KUL TUR 2

96
20

UZT 18. IRA 13



Aurten, KULTUR Programa sortu zeneko xxv. urteurrena ospatuko dugu.

Urteetan zehar eboluzionatuz joan da; ez da programa mugiezin bat izan, aldatu egin baita gaur egun Nafarroan udako aisialdi-proposamen garrantzitsuenetako bat bihurtu arte.

Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kirola Departamentuak antolatzen du eta Nafarroa osoan barna hedatzen den zirkuitu musikal bat eskaintzen du, herritarrek kalitatezko musika-proposamenak ikusteko eta entzuteko aukera izan dezaten gure lurraldeko musika-tradizio nabarmena han bilduta.

KULTURrek kultura-jardueraren deszentralizazioa sustatzen du, Iruñetik kanpora eramanda; eta gure komunitateko musika-taldeei beren lana beste udalerririk batzuetan erakusteko aukera ematen die. Hala, musika-formatu askotarikoak biltzen ditu, bai tradizionalak, bai garaikideak. Musika-emanaldiak artisten eta publikoaren arteko konplizitate-giroa sortzeko moduko lekue-tan izaten dira.

Baina KULTURren programazioak, musika-proposamenez gain, dantza eta arte plastikoak ere hartzen ditu barne.

2020an, jarduera-programa ostegun, ostiral, larunbat, eta igandean garatuko da, uztailaren 18tik irailaren 13ra bitarte, 36 herri eta intereseko lekutan. Horretan, musika-, dantza- eta arte-arloetako programazio zabala eta ugaria eskaintzen da. Gainera, larunbatetan, tokiko jarduera turistikoa bat egingen da proposamen kulturalaren osagarri, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiarekin batera antolatuta.

Uztailaren 18tik abuztuaren 30ra, Pedro Salaberri margolari nafarraren obraren erakusketa bat egonen da Bertizko Jaurerrian.

KULTUR egiten dugu lagunon nahia da Kulturereko hogeita bosgarren edizioa disfrutatzeko modukoa izatea, baita ahazteko zaila izatea ere. Horixe baita KULTUR, Mendialdeko, Erriberako eta Erdialdeko herrietako plazez eta karrikez gozatzeko ekimen bat.

KULTUR

2

96
20

BIDEAK

Pedro Salaberri

PINTURA ERAKUSKETA

BEZTIKO JAUREGIA

UZTAILAREN 18TIK ABUZTUAREN 30ERA

UZTAILA

18 LR

 **IRANTZUKO
MONASTERIOA**
**TUBALA UXOA
ABESBATZA**
ELIZA
19:00

23 OG

DONAMARIA
FETEN FETEN
PLAZA
21:00

24 OR

LODOSA
LAZY DAISY BAND
ESPAINIA PLAZA-
PASEALEKUA
22:00

25 LR

 **MARTZILLA**
EDITH PIAF TRÍO
GAZTELUKO PATIOA
21:00

30 OG

ELIZONDO
BRODAS BROS
HIPSTORY
PILOTALEKUA BRAULIO
IRIARTE
20:00

31 OR

ARTAXOA
MELENAS
FORU PLAZA
21:00

ABUZTUA

1 LR

 **GARRALDA**
ESTITXU
UDALETXE
PLAZA
20:30

6 OG

LEKUNBERRI
CON X THE BANJO
PLAZA
20:00

7 OR

OTSAGABIA
SUAKAI
ON THE ROCKS
PLAZA
22:00

8 LR

 **LEIREKO**
MONASTERIOA
UDASOINU DEL FAUNO
ELIZA
19:45

IRAILA

13 OG

IZABA

**JOAN GARRIGA I
EL MARIATXI GALÁCTIC**

ANFITEATROA
20:30

14 OR

VIANA

JAVIER RUIBAL

SAN PEDROKO
HONDAKINAK
20:30

15 LR

LIZASO

**TRÍO PALATINO ETA
DANTZARI-BIKOTEA**

ORGIKO OIHANA
12:00

20 OG

CORELLA

NUVOLUTION

FORUEN PLAZA
22:00

21 OR

ZANGOZA

TAHÚRES ZURDOS

VALLESANTORO
JAUREGIA, KULTUR
ETXEKO LORATEGIA
20:30

22 LR

ZUGARRAMURDI

TIPITAKO

SORGINEN LEIZEA (*)
18:00

OLIVAKO

MONASTERIOA

**ELKHOS
AHOTS-TALDEA**

ELIZA
19:00

27 OG

FITERO

FLOR DE CANELA

MALVAS PLAZA
21:00

**ESTELLA-
LIZARRA**

MISS OCTUBRE

LOS LLANOS
KULTURGUNEKO
LORATEGIAK
21:00

28 OR

**ALTSASU/
ALSASUA**

TODOS SECRETOS

IORTIA ZABALGUNEA
22:00

UXUE

**BRUNO, LORENA
Y AMIGOS**

PLAZA
20:00

29 LR

**ORREAGA/
RONCESVALLES**

**IN TEMPORE
ABESBATZA
CORO&ENSEMBLE**

ELIZA
20:00

MENDIGORRIA

MARUJA LIMÓN

PLAZA
20:30

30 IG

LOS ARCOS

IPARFOLK

COSO PLAZA
21:00

3 OG

TUTERA

**LOS STOMPERS
ETA NUALA IRISH
DANCERS**

ALFONSO
BORROKALARIA PLAZA
20:30

4 OR

**ETXARRI
ARANATZ**

TENPORA

PLAZA
20:30

ARGUEDAS

DE 2 EN BLUES BAND

TINGLAO PLAZA
21:00

5 LR

AGOITZ

**ELUNTZE
DANTZA TALDEA**

KULTURA ETXEA
19:00

ERRONKARI

JOKB

KIROLDEGIA
20:00

6 IG

SAN ADRIAN

JO AND SWISS KINIFE

UDALETXEKO
LORATEGIAK
20:30

11 OR

TAFALLA

KOERS

CENTRO CULTURAL
TAFALLA KULTURGUNEA(**)
20:30

RIBAFORADA

**THE BLACK LIST
SOUL BAND**

BARRANCO (ZALDUN
TENPLARIOAK KALEA)
22:00

12 LR

LEITZA

**ROLAND & LOOP
ABESTIAK**

PLAZA
20:00

BERA

**IRUÑA JAZZ BIG
BAND MEETS**

HERRIKO ETXEKO PLAZA
20:30

13 IG

GARES

KORRONTZI

PLAZA
19:30

**JARDUERA
TURISTIKOAK**

(*) ZUGARRAMURDI
Leizera sartzeko prezioa:
4,50€

(**) TAFALLA
Prezioa: 3€
SARREREN SALMENTA:
patronbase.com/_Tafalla/Productions/



18 LR

TUBALA UXOA ABESBATZA

IRANTZUKO MONASTERIOA

ELIZA: 19:00

Tubala Uxo abesbatza Carlos Etxeberria Alonso musikari eta konposatzaile tafallarrak sortu zuen, 1985ean. 32 urte hauetan, honako pertsona hauek aritu dira taldearen buru: Carlos Etxeberria, Jaime Berrade, Pili Armendáriz, Joaquín Taboada, M^a Jesús Villarreal, Arturo Goldacracena eta, 2005ez gero, Laura Calvo.

Bere musika-ibilbide guztian zehar, hainbat kontzertu eman ditu Nafarroan eta Espainian (Madrilen, Sevillan, Salamancan, Segovian, Kantabriar, Zaragozan, Errioxan...); Europan barna ere ibili da: Belgika, Frantzia, Portugal, Txekiar Errepublikar, Hungaria eta Austria.

Taldea musikazaleez osatuta dago eta ohiko elementua izaten da Nafarroako musika-eskaintzan, bertako programazio kulturean parte hartzen baitu normalean. 2016ko abenduan, bere lehen CDa kaleratu zuen, *Música de Navidad*, eta publikoak oso harrera ona egin zion.



18 LR

ABARZUA

Bisita gidatua Pacharán
Azanzaren upategira

11:00

Prezioa: 4€

Gutxieneko parte-hartzaileak: 6 pax

ERRESERBAK:

T. 948 52 00 40

licoresanza@llanosmail.com

Kideen prestakuntza musikal eta bokala eta abesbatza-musika hedatzea ditu helburu nagusi, baina ez dute alde batera uzten kideentzat zein garrantzitsuak diren horrelako talde batean ohikoak diren elkarbizitza eta talde-esperientziak, lana eta dibertsioa bateratzen baitituzte.

Nafarroako Abesbatzen Elkarteko kidea da.

ZUZENDARIA

Laura Calvo Zalacain

23^{OC}

FETEN FETEN DONAMARIA

PLAZA. 21:00

Musika fresko, dibertigarri eta oso dantzagarria, mota askotako estiloak nahasten dituena, hala nola fox trota, txotisa, jota, seguidilla, erronda, pasodoblea eta habanera. Musika-bidaia bat, gure penintsulatik beste lurralde batzuetara eramaten gaituena: Balkanetako oihartzunak, manuche ezagarriak, japoniar ebokazioak, kaioen kantuak eta itsasoaren soinua bera.

Bikote honen konposizio originalak musika-joe-
ren mosaiko bat dira eta publikoari irribarrea
sortzen diote beren izenburu iradokitzaleekin.
Hona batzuk: *Jota del Wasabi*, *Habanera de El
Espolón*, *He visto un Oso en los Cárpatos*, *Fan-
dangos de Atapuerca* eta *Swing a la pepitoria*.
Errepertorio horrek haurrak eta helduak dibert-
titu eta hunkitzen ditu, hitzik gabe istorioak
kontaktzen dituen musika baita, publikoarekiko
erabateko harmonian bat eginda, bai auditorio
handietan, bai herrietako plazetan.

Entzuteko eta dantzatzeko melodia instrumen-
tal horiek gure sustraian barnako ibilbidea
egiten dute eta Europako eta Hego Amerikako
paisaiak oroitarazten dituzten ukitu berritzaileak
txertatzen dituzte, nazioarteko biretan jaso
direnak eta Espainia osoan barna eraman dituzten
800 kontzertu baino gehiagotan zabaldu.

24^{OR}

LAZY DAISY BAND LODOSA

ESPAINIA PLAZA-PASEALEKUA. 22:00

Lazy Daisy Band taldeak Ipar Amerikako sus-
trai-musikaren soinu askotarikoak lantzen ditu.

Taldea 2014an jaio zen McGregor & The Rustlers
izenaren pean, eta country eta bluegrass musi-
karen klasikoaren errepertorioa jotzen hasi zen.

2015ean, bi single eta bi bideoklip (*Worn out
shoes* eta *Workin' Man Blues*) grabatu zituzten.

Gaur egun, country-rock-era eboluzionatu dute,
baina beti eutsi diete blues, folk eta rockabillya-
ren ukituei; *Napar-Country* izenarekin bataiatu
dute estilo hori. Gaur den egunean, country-rock
soinurako joera hartu dute.

Egun, **Lazy Daisy Band** kantu propioez osatu-
tako lehen diskoaren aurrekoizpen-lanetan ari
da.

KIDEAK

Axel McGregor: ahotsa, banjoa eta gitarra /

Fafu Charger: gitarra /

Al Butcher: kontrabaxua /

Pi O'Lee: batera / **Mike Richman:** gitarra



25^{LR}

EDITH PIAF TRÍO

MARTZILLA

GAZTELUKO PATIOA. 21:00

Ysi Calima abeslari polifazetiko eta moldakorra da eta 948 Merkatuan (Nafarroako lehenbiziko Arteen Azoka) hartu zuen parte ezusteko artista gisa; han aurkeztu zuen bere lehen diskoa, Miscelánea. **Edith Piaf** Hirukotearen ahotsa ere bada.

Ysi Kalima haizea da: besarkatzen eta emozioz betetzen gaituen ahots bat. Goratu egiten gaitu eta ametsen munduetara garraiatu.

Ysi Kalima lurra da: bere ahotsarekin pizten gaituen erritmoa eta indarra.

...honako gaitasun hauek ditu: aditzen duena emozio-dimentsio batera eramaten du, alegia, noizbait ere musikarekiko pasioa sentitu duten horien bizitzan barnako bidaia batera; ...emozio-uholde bat transmititzeko gai da bere ahots goxo eta indarrez beteari esker; bere arima zahar eta mestizoarekin konektatzen duen estilo pertsonal eta besterenezin baten oinordekoa da. Ezinezkoa da bizitasun-uholde horri ihes egitea. Haren argiak energia igortzen du eta haren ahotsa emozioen mailakatze bat eragiteko gai den iman bat da.

Zuzeneko oso zaindua denez eta errepertorioa kontu handiz hautatua duenez, publikoa harrrapatu egiten du eta esperientzia musikal eta emozional bizi batean murgilarazten du.



25 LR

MARTZILLA

Marcillako Gaztelua
antzezutako bisita

20:00

Prezioa: 3€

Gutxieneko parte-hartzaileak: 10 pax

ERRESERBAK:

cultura@marcilla.es

T. 948 71 35 45



30^{OR}

BRODAS BROS HIPSTORY

ELIZONDO

PILOTALEKUA BRAULIO IRIARTE. 20:00

200.000 ikuslek baino gehiagok ikusi dituzte beren emanaldiak, eta *SDK munduko txapelketa*, 2012ko *Eurobattle txapelketa* eta *JustedeboutSpain* (hainbat aldiz) irabazi dituzte. 2017an, Max Sarietarako izendapena lortu zuten antzezle-zerrenda hoberenarengatik, eta 2018an, kaleko ikuskizun hoberenarengatik.

Brodas Bros hiri-dantzako konpainia hip hopa agertoki handietara eramateagatik da ospetsua, eta, oraingoan, *Hipstory* aurkezten du.

Hipstory hip hoparen istorioa lantzen du, dantzekin, gag-ekin, zuzeneko musikarekin eta publikoaren parte-hartzearekin.

4 dantzarik, bboy batek eta beat boxen aditua den zuzeneko musikari batek alaituko dute ikus-kizuna, **Brodas Bros**en Mediterraneoako giro ona publiko osoari kutsatuz.

31^{OR}

MELENAS ARTAXOA

FORU PLAZA. 21:00

Bueltan dator **Melenas**, horrenbeste espero genuen bigarren LParekin; kasu honetan, nazioarteko oihartzun eta banaketa izan du *Trouble in Mind Records* estatubatuar disko-etxearen bidez; besteak beste, Jacco Gardner, Mikal Cronin eta Night Beats artistek lan egin dute disko-etxe horrekin. Gröningen-eko (Amsterdam) *Eurosonic* azoka profesionalean (askoren ustez, Europako garrantzitsuena) erabateko arrakasta izan eta gero, Iruñeko taldea prest dago nazioarteko merkatua eta publikoa bereganatzeko, 2017an bere lehenengo lanarekin lortu zuten arrakastaren ondoren. *Días Raros* izeneko LPak Melenas-en konstanteei eusten die: gitarraz eta *reverb*ez betetako soinua eta barren-barrenera sartzen diren kantak; eta izugarri zabaltzen du bere akzio- eta eragin-gunea.

Oihana, Leire, María eta **Laura**ren karrera oso azkarra izaten ari da; izan ere, taldea sortu eta bi urtera, Espainia erdiko agertokietatik pasatu dira eta SXSW-en (AEB), Herbehereetan, Ingalaterran eta Frantzia ere ibili dira. 2020an, baieztatua dute zenbait jaialditan parte hartzea, hala nola: Madrilgo Tomavistas, Vilanova i la Geltrúko Vida eta Torremolinos Canela Party jaialdi dibertigarria. New Yorken ere, kontzertua eman zuten *New York Fashion Week*-en, Ulla Johnson diseinatzailearen moda-desfilean zuzenean jo baitzuten.





1



1 LR

ABAURREGAINA**Bisita Gidatua
Hilarriak museora****11:00 a 20:00****Prezioa: 4€**

ERRESERBAK:

turismo.abaurrea@gmail.com

T. 615 16 39 30

1 LR

ESTITXU
*GARRALDA**UDALETXE PLAZA. 20:30*

Estitxu abeslari eta konposatzaile nafarra (Bera, 1987) 15 urterekin hasi zen musika-munduan, Egan erromeria-talde ezagunaren teklatu-jotzaile eta koru-egile. Handik aurrera, eta abeslari gisa, zerbait proiektutan ibili da, musika-estilo desberdinekin, euskal musikaren kanta tradizio-naletik hasi eta jazz edo erritmo latinoagoetara. Gainera, **Estitxuk** euskal abeslari ospetsuen aldeko omenaldi-kontzertu berezietan hartu du parte, egun musika-munduan ospetsuak diren beste artista batzuekin batera, hala nola Alex Sardui, Eñaut Elorrieta, Mikel Urdangarin, Petti eta Miren Narbaizarekin.

2019ko azaroan argitaratu zuen bere lehen diskoa. *Haize gorri bat* izenburupean, berak sortutako kantez osatuta dago. Euskaraz idatzitako testuak ukitu beltzeko musikarekin jantzi ditu, eta agerian utzi ditu bere ahots ahaltsuaren kahlitatea eta distira, musikari bikainez lagunduta.

6





6 OG

CON X THE BANJO

LEKUNBERRI

PLAZA. 20:00

Con X The Banjo taldea lau mutil nafarrek osatzen dute eta astegunetan entseguak egiteko bakarrik zapaltzen dute beren jaioterria. Bost urte baino gehiago daramatzate Espainia osoan zehar beren kantak erakusten; horiek zenbait EPtan eta luzera handiko batean bildu dituzte. Denbora horretan, ehunka kontzertu eman dituzte, beren kantutegia zabaldu, beren teknika biribildu eta istorioz eta bizipenez bete dute beren inspirazioa. 2019an, kide berria hartu zuten, eta, gaztetasunaren kemenaz, bi egunetz eta etenik gabe grabatutako EP batean islatu nahi izan zituzten beren sentazioak. Oso-osorik zuzenean grabatu zuten Andoaino Garate estudioetan, mozketarik egin gabe. *El Epicentro* lanak honako hauen soinua biltzen du: *rock and roll* purua, sustraiak, bizitza dastatu duen gaztetasuna, beti hobeak diruditen garaiak eta, batez ere, beren soinua propioa, beren larruzalean eroso daudelako. **Con X The Banjo** etengabe hazten eta lanean ari da, eta, hala, Nafarroa ordezkatu ahal izan du Bilboko BIME jaialdi entzutetsuan.

7 OR

SUAKAI ON THE ROCKS

OTSAGABIA

PLAZA. 22:00

On the Rocks ikuskizunaren musika. Kontzerturako bertsoian, rockaren abesti ospetsuenak, balada sakonenak eta bertsiarik pertsonalenak entzun ahal izanen dira. Azken urteotako abesti arrakastatsuenak inoiz ikusi ez den talde baten eskutik; amesten eta oroitzen lagunduko digu. Ahots izugarri batez gozatu ahal izanen dugu, biolinaren eta txeloaren xuxurlaz, gitarraren harmoniaz... Hori dena bateriak eta baxuak sustengatuta. Baina... Zer aditu behar dugu?

Honako hauen zaleentzako kontzertu perfektua da: nazioarteko rocka, soula eta jazz. Askotariko estiloak biltzen ditu, hala nola Sting, U2, Alicia Keys eta Zenet. Ikuskizunerako prestatu diren bertsoiak oso bitxiak eta bereziak dira; kontuan hartuta horiek jotzen dituen aparteko taldea, unerik sutsuenak, baita goxoenak ere bizi ahal izanen dira kontzertu berean.

8 LR

UDASOINU DEL FAUNO

LEIREKO MONASTERIOA

ELIZA. 19:45

Francesca Croccolino pianista italiarra da. Bost urterekin hasi zen pianoa jotzen ikasten. Goi-mailako Titulua lortu zuen Erromako S. Cecilia kontserbatorioan. Gero, graduondoko ikasketekin jarraitu zuen Espainiara joan arte, 1990ean. Ganbera-musikako Goi-mailako Titulua lortu zuen Donostiako Goi-mailako Kontserbatorioan. 1993tik Ganbera-musikako irakaslea da Nafarroako Goi-mailako Kontserbatorioan. Interpretatzaile gisa, ganbera-taldetan aritu ohi da, Espainia osoan zehar.

Alberto Itoiz Nicuesa jaioterrian, Zangozan, hasi zen zeharkako txirula jotzen ikasten eta "Pablo Sarasate" Goi-mailako Kontserbatorioan amaitu zituen ikasketak. Hendaia eta Parisen egin zituen graduondoko ikasketak. Hainbat orkestra- eta ganbera-talderekin lan egiten du grabaketa, ziklo sinfoniko, zarzuela eta kontzertuetan, txirula solista gisa. Klaseak eman izan ditu Errioxan, Nafarroan, Araban eta Gipuzkoan. Gaur egun, Gasteizko Udal Banda profesionalen jotzen du txirula, oposizio-lehiaketa bati esker.

www.albertoittoiz.com

Programan zeharkako txirularako erreperitorio klasikoko sei obra joko ditugu. Sei autore frantsesen obrak dira, XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen hasiera bitartekoak; garai hura oso garrantzitsua izan zen, izan ere, orduan hasi zen zeharkako txirula instrumentu solista gisa berriro indarra hartzen.



8 LR

LEIREKO MONASTERIOA

Bisita gidatua monastegira
eta Leyreko likorea eta
txantxigorri opilen
dastaketa

LEIREKO MONASTEGIA

17:30

Preziosa bisita gidatua: 3,80€

Preziosa dastaketa: 3€

ERRESERBAK:

visitas@monasteriodeleyre.com

T. 948 88 41 50



13^og

JOAN GARRIGA I EL MARIATXI GALÁCTIC

IZABA

ANFITEATROA. 20:30

Dusminguet-en sortzailea eta La Troba Kung-Fú-ko arima da **Joan Garriga**, eta artista oso garrantzitsua, XXI. mendearen Katalunian musika herrikioiak izandako garapena ulertzeko. Rumbiaren sortzailea (rumbaren eta cumbiaren arteko hibridoa) da, Valléseko jatorri-izendapenarekin; nahasmenik gabeko fusioaren aitzindaria baino gehiago da: haren eskusoinu diatonikoan, tradizio mediterraneoaz gain, unibertso latino eta mugakoei buruzko eta Jamaika osoari buruzko jakinduria mugagabea sartzen da. Oriol Broggiren azken bi antzezlanen musika-banda konposatu eta interpretatu eta gero, Joan Garrigak bere azken banda aurkezten digu, Mariatxi galàctic, *Nocturns de vetlla i revetlla* (Kandela eta dantzaldiaren nocturnoak) EParekin. Honako hauek ditu bidelagun: Marià Roch (baxua), mila proiektutan berarekin ibilitako lagun fidela; Rambo (bateria), erritmo-galdararen su-emaitza, eta Madjid Fahem gitarra-jotzailea (Manu Chao, La Ventura). Garrigatarrak bere egiten du Mexiko iparraldeko ohiko instrumentazioa, Gato Pérez handiaren ondare etiko eta estetikoa inork ez bezala kudatzeko.

14^oR

JAVIER RUIBAL

VIANA

SAN PEDROKO HONDAKINAK. 20:30

El Puerto de Santa María, Cádiz, 1955eko maiatzaren 15a. Konposatzailea, gitarra-jotzailea, abeslaria, bere testuen egilea eta bere lanen moldatzailea. Haren musikan, flamenkoak, musika sefardiak, magrebtarrak, jazzak eta rockak egiten dute bat, besteak beste. 2007ko otsailaren 28an, Andaluziako Domina jaso zuen bere ibilbidearen aitortpen gisara.

Prestakuntza heterodoxoa eta autodidakta izan du eta, haren konposizioetan, gaur egun urruti dauden baina garai batean hurbil izan ziren kulturen oihartzunak eta soinu-formulak biltzen ditu. Ez du kultuzko musika egiteko asmorik, baizik eta jazzaren eta rockaren elementu eta eraginak jasotzen dituen musika modernoa.

Javier Ruibal ek bere abestien testuak sortzen ditu, eta, horietan, espainiar poesiarekiko lotura argia hautematen da, bereziki 27ko belaunaldiko poetekin (Rafael Alberti eta Federico García Lorca) eta egungo beste zenbaitekin.

1978an hasi zuen bere ibilbide profesionala eta kontzertu ugari eman ditu Espainian nahiz beste herrialde batzuetan. Bere lanaren berezitasunarengatik eta erabiltzen dituen forma askotari-koengatik, estilo desberdinetako kontzertuak ematera gonbidatu dute: jazz jaialdietan, *world music*... Horrez gain, zinemarako lan egin du, Pablo Carbonellen *Atún y chocolate* filmean; Canal Sur-eko *Ratones Coloraos* telesailerako, eta Cádizeko Diputazioak argitaratutako zenbait ikus-entzunezko ekoizpenetarako (*El mar de la libertad*, *A galopar* eta *Algeciras-Tánger*).

Beste artista askorentzat ere egin ditu konposizioak, hala nola Martirio, Ana Belén, Javier Krahe, Mónica Molina eta Pasió Vega, eta beste hainbatekin batera abestu du: Pablo Milanés, Joaquín Sabina, Celtas Cortos, Carlos Cano, Martirio, Carmen París eta Joaquín Calderón. *La Reina de África* edo *Pensión Triana* dira **Javier Ruibalek** beren konposizioetan egiten duen estilo-nahasketaren adibide.



15

15^{LR}

TRÍO PALATINO ETA DANTZARI-BIKOTEA

LIZASO

ORGIKO OIHANA. 12:00

Trío Palatino Roberto Casadok (flauta), **Carlos Secok** (biola) eta **Sergio Larriónek** (gitarra) osatzen dute; ibilbide luzea dute hiru musikari horiek eta *Astor Piazzollaren Tangoa* interpretatzen dute oraingo honetan. Haiekin batera, bikote bat dantzan ariko da.

Astor Piazzolla bizitza guztian zehar egon zen Tangoari lotua. Hasieratik, Gardeli bere bandoneonarekin laguntzen zionean eta, gero, berak sortutako taldeetan. Tango tradizionala xx. mendeko lengoia musikalekin (garaikidea, jazz...) fusionatzen jakin zuen. Eta horren erakusgarri da gaur aurkezten dugun programa tango-dantzarien bikote batek dantzatzeko duela maisuki, ikusgarri eta bizi.

Piazzollak berak bere lanei buruz egindako bertsio ugariak aukera ematen digute gure mol-daketak egiteko, ez baitago jatorrizkorik flauta, biola eta gitarrarako. Haren musikaren lagin txiki bat aurkeztuko dugu eta espero dugu maisu handi horren errepertorio handian murgiltzeko laguntza eta motibazioa izatea.

15 LR
LIZASO

Slow Food Janariaeta
gaztako talerra

ULTZAMA ABELETXE ESKOLA (LIZASO)

14:00

Prezioa: 30€ helduak / 12€ harruak
Gutxieneko parte-hartzaileak: 10 pax /
max. 35 pax

ERRESERBAK:

info@granjaescuelaultzama.com

www.granjaescuelaultzama.com

T. 629 12 64 99

20



21

20^{or} NUVOLUTION CORELLA

FORUEN PLAZA. 22:00

Espainiar *World Music*-eko **Nuvolution** taldeak mestizaje harrigarriez eta soinu tribalez betetako ikuskizun bat aurkezten du, sortze-askatasuna aldarrikatuz eta honako hauen konplexurik gabeko fusioaren alde eginez: erritmo ekialde-tarrak, indiarak, zeltak, funk-ukituak eta apaingarri elektronikodun soula. Sei musikari aterako dira agertokira, eta taldeak eszenaratze dotorea aurkeztuko du, baita harrigarria ere, sormenaren bidez lortzen duen urratzearengatik; hala, nahasketa oso ez-ohikoak entzunen ditugu, hala nola indiar abesti bat irlandar folkera eboluzionatzen duena, erritmo zeltak soul-ahotsekin edo ekialdeharmoniari funkarekin nahasita.

Taldea bere bigarren diskoaren (*Out of Place*, Lekuz kanpo) bira bete-betean dago, eta, hartan, omenaldia egiten diote musika zintzo eta egiazaleari, musika-industriak ezarritako kانونen mende ez dagoen musikari, hain zuzen.

Nuvolution taldeak nazioarteko kritikaren aitortzena lortu du, zenbait sari eskuratu baititu, hala nola Indie *Songwriting Contest* saria *The Blood of the Ancestors* singlearekin, *Hollywood Songwriting Contest* saria eta *Global Music Awards* saria. *Hollywood Music in Media Awards* (HMMA) sariketarako, hiru izendapen lortu ditu elkarren segidan; Estatu Batuetako musikan dagoen sariketari garrantzitsuenetako bat da eta *Grammy* sariari bezpera ere deitzen zaio; *American Songwriting Awards* saria irabazi duen lehen talde espainarra da eta *UK Songwriting Contest* sariketaren finalera ere hiru aldiz ailegatu da.

21^{or} TAHÚRES ZURDOS ZANGOZA

VALLESANTORO JAUREGIA,
KULTUR ETXeko LORATEGIA. 20:30

2004an, **Tahúres Zurdos** taldeak agur esan zuten, 17 urteko musika-ibilbidea egin eta gero. Edo gero arte; izan ere, lehenengo urteko abuztuaren 17an, gero arte horretatik 15 urtera, agertokietara bueltatu zen talde nafarra, ongintzako arrazoiengatik: Draveten Sindromea Elkartearen aldeko ongintzako kontzertu bat ematea.

Horrelakoetan gertatzen ohi denez, entseguetan eta geroko kontzertuetan sortutakoaren ondorioz, eta hasierako 4 taldekideen harreman onari esker, taldea bueltatu egin da. Inoiz ez bezala interpretatzen dute 1987 eta 2004 bitarteko errepertorio pertsonal eta originala; historia musikalki errepikaezina sortu zuen **Tahúres Zurdos** izeneko Rock talde desberdin eta paregabe horrek.

Zortzi disko izan ziren (gehi zuzeneko bikoitz bat), abesti oso pertsonalez beteak, eta haren liderraren ikuspegi bereziarekin: Aurora Beltrán. Emakume paregabea! Aurorak jendearen errespetua eta miresmena lortu zituen gauzak ikusteko zuen sentikortasunarengatik eta bere indararengatik. Beren irudi-mundua oso ongi islatzen da Tahúres Zurdos taldearen kantutegian, 8 disko ikaragarri horien bidez.

Tocaré, La Noche es, El chico de la mirada asustadiza, Muerte ven, Mis hijos me espían, Nieve negra, Chicas fuertes, La Caza, Azul, Miles de besos eta *Mañana* kanteak Lolo, Juanma eta Puntxes-en moldaketan eta sendotasunaren onura lortu zuten, eta horiek, Auroraren ahotsarekin batera, soinu berezia eta zuzeneko ikusgarri eta fidagarria sortu zuten.

KIDEAK

Aurora Beltrán: hotsa eta gitarra /

Lolo Beltrán: gitarra /

Juanma Ugarte: baxua /

Javier Lizarazu Puntxes: bateria

22_{LR}

TIPITAKO

ZUGARRAMURDI

SORGINEN LEIZEA. 18:00

Leizera sartzeko prezioa: 4,50€

Nafarroako talde hau 2010ean sortu zen, asmotzat izanik flamenkoaren, rockaren eta estilo latinoen ukituen arteko estilo-nahasketa eszenaratzea eta artisten eta publikoaren arteko baterako dantza bat sortzea.

Lokal txikietan hasi ziren kontzertuak ematen, lagunaren artean eta herriko festetan, eta, poliki-poliki, agertoki berriak lortzen hasi ziren, hala nola *360 Nafarroako Jaialdia*, Foru Plaza bi aldiiz Iruñeko sanferminetan eta Errioxako *Actual Jaialdia*.

Zenbait lehiaketa ere irabazi zituzten, *Nafarroako Gazte Artisten Topaketa* eta Errioxako *Guerra de Bandas*, besteak beste.

Beren ibilbidean zehar, artista ezagunekin partekatu dute agertokia: Chambao, Celtas Cortos, Gipsy Kings, Chiki Lora, Talko, Kase, etab.

Hiru lan argitaratu dituzte:

Maskaraquespalda (2012an argitaratutako maketa, Alakrania records-ekin); *Tipitako* (2014an argitaratutako LPa, SÑNT records-ekin); *Sonido de Bolsillo* (2017an argitaratutako LPa, SÑNT records-ekin eta Punta Paloma estudioarekin)

Tipitako eskaintzen duen emanaldia energetikoa da eta, gehienetan, alaia, baina, batez ere, lotura zuzena eskaintzen du publikoarekin, kantetan parte harrarazten baitute.

22_{LR}

ELKHOS AHOTS-TALDEA

OLIVAKO MONASTERIOA

ELIZA. 19:00

Elkhos ahots-taldea 2004an sortu zen, haren fundatzaile eta zuzendari Carlos Gorricho Otermin jaunaren eta musikari lotutako hainbaten ekimenez, helburu bakarra izanik: abesbatza-musika interpretatzea. Gaur egun, 22 lagunek osatzen dute, eta horietako askok eskarmentu luzea dute abesbatzaren munduan. Talde sendoa sortzen dute, pasioz eta sentikortasun handiz abesten duen abesbatza. Kantatzean hunkiarazten du, eklektikoa da eta, batez ere, musikala. Abesbatzak programa oso zabala eta bariatua du, eta obra profanoak zein sakratuak interpretatzen ditu, zenbait garai eta estilotakoak; gainera, euskal folkloreko obrak sortzeko eta harmonizatzeko lana ere egiten du. Horrela, lan-bide berriak ematea lortzen du, bai abesbatzarentzat, bai, oro har, panorama musikalerako. Horrez gain, mundu osoko konposatzaileei agintzen die lanak sortzeko; eta, hala, abesbatza-musikako errepertorio propioa eta gaur-gaurkoa dute. Bere ibilbidean zehar, **Elkhos** ahots-taldeak zenbait erkidego autonomikotako (Galizia, Euskadi, Errioxa, Gaztela-Leon, Valentziako Erkidegoa) eta Ipar Euskal Herriko ziklo eta kontzertuetan hartu du parte. Belgikan eta Herbehereetan barna egin ditu birak, eta kritika bikainak jaso ditu bere emandietan. Zenbait lehiaketatan hartu du parte eta Hirugarren saria jaso zuen Antonio José de Burgos XIII. Abesbatza Lehiaketa Nazionalen



27 OG

FLOR DE CANELA

FITERO

MALVAS PLAZA. 21:00

(2014). 2014ko abenduan ere, *Villa de Rojas* Sehaska- eta Gabon-kanten XXXVI. Lehiaketa Nazionalan hartu zuen parte, eta lehen saria lortu. 2016an, mundu guztiko abesbatzen artean hautatu zuten, eta kritika arrakastatsuak lortu zituen Torreviejako Polifonia eta Habaneren Nazioarteko Lehiaketan parte hartzean. Atzerriko azken kontzertua Errusian eman zuten 2018an; San Petersburgoko Kaperako Glinka Aretoan abestea lorpen izugarria izan zen. 2019an, 10 kontzertu egin zituen, Nafarroan, Kantabrian, Valladoliden... Nafarroako Abesbatzen Elkarte-kidea da.

ZUZENDARIA Carlos Gorricho

Flor de Canela 2017ko udan sortu zen Bartzelonan, Kataluniako Goi Mailako Eskolan (ESMUC), haren partaideek han egin baitzituzten Musika Modernoko eta Jazzeko goi-mailako ikasketak. Beren erreperitorioan hauteman dezakegun jazz-eraginaz gain, proiektuak Latinoamerikako folkloreaken sonoritatean sakontzen du eta, besteak beste, popak, rumbak eta soulek ekartzen duten lengoaiatik elikatzen da. Abesti herrikoien moldaketak ere badituzte beren erreperitorioan, baina baita partaide bakoitzaren konposizioak ere, ezaugarri duten estilo-mestizajearekin bat egiten dutenak. Estilo oso pertsonala eta haien aromaren eragina duen musika dira **Flor de Canelaren** esentzia, kalitatezko moldaketekin eta instrumentazio elektriko eta modernoarekin batera. Haren zuzenekoak denengana ailegatzeko dira; horietan, beren potentzia guziaz ustiatzen dute eta inprobisazioak dituzte ezaugarri.

Beren ibilaldi laburrean, programazio ospetsuetan hartu dute parte, hala nola *Fetal Jaialdiaren XXI. edizioan*, Madrilgo *Distrituetako Jazz Jaialdian*, Bartzelonako *Música Als Parcs* jaialdian, *Huesca es Jazz* jaialdian, Galileo Galilei Aretoan (Madril), Valladolideko Unibertsitatean, *Gigante Jaialdian*, *Womad LPGC-en...* 2019. urtearen bukaeran atera zuten beren lehen lan diskografiakoa, bost abesti propio dituen EP bat; Juanma Latorre Vetusta Morla taldeko gitarra-jotzaile eta konposatzaileak ekoiztu zuen; 2020an, berriz, zuzeneko lana aurkeztu zuten Los Conciertos de Radio 3 programan eta TVEko La 2 telebista-katean eman zituzten horri zegozkion irudiak.

KIDEAK

Núria Balaguer: ahotsa /

Paula Vegas: piano eta koroak /

Xerach Peñate: bateria eta koroak /

Marta Bautista: kontrabaxua, baxu elektrikoa eta koroak



22 LR

OLIVAKO MONASTERIOA

**Bisita monastegira
(ez da gidatua)**

CARCASTILLO

9:30 - 12:00 eta 16:00 - 18:00

Prezioa: 2,50€

ERRESERBAK:

biblioteca@monasteriodelaoliva.org

T. 948 72 50 06



27 OG

MISS OCTUBRE ESTELLA-LIZARRA

LOS LLANOS KULTURGUNEKO
LORATEGIAK. 21:00

Miss Octubre-k rock klasikoa eta joera berriak uztartzen dituen estiloa irmotu du *Demasiado(s) Humanos* azkeneko diskoarekin. Album sendoa eta rockeroa da, taldearen estiloari guztiz jarraiki; lan berri horrekin, jarraipena eman diote 2014an hasitako proiektuari.

Alfredo Piedrafitak (Barricadako gitarrista ohia) eta **Agnès Castañok** (Lilithko abeslaria) sortutako taldea estatuan zehar dabil diskoarekin, haren abestiek duten indar guztia deskargatuz eszenaratze handi batean; errepertorioak taldearen rock-and-rolleko himno mordoxka du, eta haren ondare musikalean zehar ere ibiltzen da.

28



28 OR

TODOS SECRETOS ALTSASU/ALSASUA

IORTIA ZABALGUNEA. 22:00

Todo Secretos Los Secretos taldea miresten zuten 5 laguneko talde batek sortu zuten, Cartagenan (Murtzia), 2018an; entsegu eta ordu askoren ondoren, azkenean erabaki zuten dibertitzen hastea hiriko lokal txikietan talde horren kantarik ezagunenak joz; baina La Unióngo (Murtzia) udalak kontratatu zituen herriko festetan jotzeko, eta entzuleak harrিতuta utzi zituzten beren kontzertu ikusgarriarekin.

Kontzertu haren ondoren, etengabe aritu dira biran Espainia osoan zehar eta Los Secretos-en omenaldi-talde hoberenaren izendapena jaso dute Espainian.

KIDEAK

Antonio Martínez: ahotsa eta gitarra /

Paco Dodero: gitarra /

Diego Cánovas: bateria eta perkusioa /

Daniel Morales: teklatuak /

Paco Sánchez: baxua eta koroak



28

28 OR BRUNO, LORENA Y AMIGOS UXUE

PLAZA. 20:00

Bruno eta Lorena Jiménez. Jiménez anai-arrebak Zangozako bi gazte flamenko dira. Flamenkoarekiko pasio eta zaletasun argiarekin, Brunok eta Lorenak pop-kantak nahasten dituzte ukitu flamenkoekin eta arraza-oihartzuenekin. Soinu-aberastasun handiko errepertorioa eskaintzen dute, bertso originalaz beteta, artearen interpretazio pertsonala ezaugarri izanik. Lorena Jiménezek kantatu eta kaxoi flamenkoa jotzen du, eta Bruno Jiménezek, berriz, gitarra. Elkarrekin emozio-leherketa bat sortzen dute; aparteko konexioaren eta sentimendu flamenkoaren erakustaldiak berritu eta musikaren bide berriak aztertu nahi ditu, gustu onez eta errespetuz.

Félix Estévez. Teklatu-jotzailea, perkusio-jotzailea eta moldatzailea mota askotako taldeetan: flamenkoa, flamenko fusioa, popa, musika garaikidea, jazz, latin jazz eta rock fusioa,

besteak beste; maila handiko artistekin jo du, hala nola Tomatito, Josemi Carmona, José Luis Salinas, Jorge Pardo, David eta Carlos de la Jacoba, Alba Molina, Kiki Morente, José El Francés, Antonio Carmona, Potito eta Montse Cortés-ekin. Proiektu garrantzitsuetan parte hartu du, besteak besteak, Joaquín Cortés dantzariaren eta Antonio Carmona musikari eta egilearen biretan.

Pedro Gabarre (Popo). Pedro Gabarre, Popo, musikaria, perkusio-jotzailea, flamenko-dantzaria eta diziplina anitzeko artista da. Flamenkoak eman duen familia handienetako bateko kidea da, Carbonell familiakoa, hain zuzen. Ama flamenko-dantzaria du, eta aita, flamenko-kantzaria. Enrique Morenteren iloba da eta hura izan zen haren mentorea. Kiki Morente eta Estrella Morenterekin batera ibiltzen da normalean haien biretan. Flamenko fusioaren.

29_{LR}

IN TEMPORE ABESBATZA CORO&ENSEMBLE

ORREAGA/RONCESVALLES

ELIZA. 20:00

Tejiendo sueños - *Ametsak ehuntzen* izeneko programa interpretatuko du **In Tempore Abesbatza, Coro & Ensemble** taldeak, soka- eta piano-seikote instrumental batek lagunduta. Abangoardiako musika, entzule guztientzako modukoa; horren erakusgarri dugu Ola Gjeilo-en *Dreamweaver* lana, kontzertu honen lotura-haria iradoki eta laburbiltzen baitu: giza nahiak. Musika-proposamena hibrido bat da, zeinaren testuek honako hauetarako gogoia erakusten baitute: bizitzea, justizia, elkarrenganako errespetua, inklusioa, eta gizarte teknifikatu eta indibidualista honen oker handienetatiko askapena. Programa honekin, abesbatzak bere proiektu kulturalarekin aurrera segitu nahi du abesbatza-orkestrako musika garaikidearen arloan, bizirik dauden eungo konposatzaileen lana eskainiz; estilo, joera, prestakuntza eta jatorri desberdinetako konposatzaileak, hain zuzen: Kim André Arnesen (1980) eta Ola Gjeilo (1978) norvegiarrak, Dan Forrest (1978) estatubatuarra, eta Carlos Etxeberria (1961) **In Tempore Abesbatza, Coro & Ensemble**ren zuzendaria. Programa bost lan osoren eta labur baten mugimenduen hautaketa batez osatuta dago, eta seikote instrumental baten formatura egokitu dira.

29_{LR}

MARUJA LIMÓN

MENDIGORRIA

PLAZA. 20:30

Maruja Limónek *Ante mí* disko berria (Kasba Music, 2019) aurkeztzen du. Proposamenak taldeak ezaugarri duen esentziari eusten dio: musika bizia, flamenkoaren, poparen eta eritmo latinoen artean mugitzen dena, baina soinu berriekin eta gai konplexuekin ere ausartzen dira. *Mundo Sonorok* disko hobereen artean hautatu du eta MIN 2020 sarietarako izendatu dute.

Ante mí lanean, Bartzelonako boskoteak gure gizartearen gutxien ikusten diren egoerak jartzen ditu agerian, eta narrazio musikal bat sortzen du gure egunerokotasunean izaten ditugun isilaldiei bizia emanez. *Más de ti* (Kasba Music, 2018) beren lehenbiziko diskoaren jarraipena da; hark aitortpena jaso zuen, urteko disko hobereen artean aukeratu baitzuten *Mundo Sonorok*, eta *Muzikaliak*; Premis ARC 2018 Sariketaren 'Artista Berria'ren saria ere irabazi zuen.

Maruja Limónek izen handiko jaialdietan izan du arrakasta, hala nola: *Sziget Jaialdia* (Hungaria), *Eurosonic* (Herbehereak), *Maré de Agosto* (Portugal), *Festival Cruïlla*, *Pirineos Sur*, MMVV.

29



29 LR

MENDIGORRIA

Bisita Andelos
erromataren hirira

ANDELOSKO ARKEOLOGI MUSEOA

10:00-14:00 eta 16:00-19:00

Prezioa: 2€

ERRESERBAK:

info@guiartenavarra.com

T. 948 74 12 73



30 IG
LOS ARCOS

Santa María de Los Arcos.
Bisita elizara
(ez da gidatua)

18:00

Prezioa: Doan

Gutxieneko parte-hartzaileak: 5 pax

ERRESERBAK:

cultura@losarcos.es

T. 948 64 08 68 / 948 64 00 21

30 IG

IPARFOLK
LOS ARCOS

COSO PLAZA. 21:00

Espanian barrenako zenbait jaialditan aritu eta Portugalgo eta Eskoziako lurretan ibili eta gero, **IPARFOLK** bueltan dator KULTUR programara, eta, zehazki Los Arcosera, bere musikak dakarren ahaldun eta energia guztiarekin.

Kanta guzti-guztietan suma daiteke oinarri zelata, baina erritmo-nahasketa horrekin esan genezake taldearen estiloa ongi erabilitako izen batekin defini daitekeela: Folk/Zelta/Fusioa, baina beren zuzeneta garbi hautematen den *kemen bizi* hori behin ere galdu gabe. Hasieratik bukaeraraino, helburu hauek markatuta beti: jendea adoretu eta altxaraztea, taldeak agertokian bezainbeste disfruta dezan, emanaldietan zehar gertatzen den guztian parte harraraziz.





3^{oc}

LOS STOMPERS ETA NUALA IRISH DANCERS

TUTERA

ALFONSO BORROKALARIA PLAZA. 20:30

Irlandar musika eta dantzen gau-emanaldia

Stompers-ek 25 urte daramatzate irlandar musika jotzen Europa osoan zehar, The Dubliners talde ospetsuaren pausoei jarraituz, horiek izan baitira irlandar folk-musikaren adierazgarri handiena. *Tribute to The Dubliners* ikuskizun berriarekin, omenaldia egin nahi diete beren heroei, Dublinera egindako bidai musikal dibertigarri baten bidez; izan ere, hiri hura Irlandako hiriburua izateaz gain, puben eta pinten hiriburua ere bada!

Kontzertuan zehar, irlandar tabernetako abesti klasikoak adituko ditugu, hala nola *Dicey Reilly*, *I'll Tell Me Ma*, *The Wild Rover* eta *Whiskey in the Jar*, eta, horiekin tartekatuta, abesti instrumental alaiak joko dituzte: giga, polka eta reel ospetsuak. Bitartean, abestien atzean dauden istorioak kontatuko dituzte Brian eta Dara dublin-darrek, baita Dublingo bizitzaren bitxikeriak ere.

Zenbait irlandar dantza tradizional ere ikusiko ditugu; eta, haietan, **Nuala Irish Dancers** taldeko

Polinak eta Valeriak beren abilezia erakutsiko digute, bai oinetako bigunekin, baita irlandar klakeko gogorrekin ere; mundu osoan ospetsu bihurtu da azken hori *Riverdance* ikuskizunari esker.

Tribute to The Dubliners gau-emanaldia ahaztezina izanen da, ipuinez, abestiez eta dantzez betea; orain dela mende bateko Dublinen barnako ibilaldi bat (hango etxeak, pubak, jendea eta musika) **Los Stompers** taldearen eskutik: The Dubliners-ek utzitako ondarearen oinordeko zuzenak.

LOS STOMPERS

Brian O'Mahony: gitarra akustikoa eta ahotsa /
Kiko Fergananim: banjoa, mandolina eta ahotsa /
Dara Luskin: baxu akustikoa eta ahotsa /
Toni Ribas: flauta, bodhran-a eta ahotsa /
David Holmes: biolina

NUALA IRISH DANCERS

**Polina Gororkhovodatskaya /
Valeria Gororkhovodatskaya**



4 OR

TENPORA

ETXARRI ARANATZ

PLAZA. 20:30

Tenpora Tolosaldean sortutako taldea da. Ibilbide luzeko bost musikaririk osatzen dute; 2012an hasi ziren jotzen eta bi disko luze argitaratu dituzte (*Mundu berria 2014* eta *Itzulika 2017*).

Aipatzekoak dira taldearen osaera eklektikoa eta erakusten duten musika-aberastasuna; baina ez da harritzekoa, kontuan hartzen badugu beste proiektu eta talde batzuetako partaideak ere badirela, hala nola: Maddi Oihenart, Benito Lertxundi, Ruper Ordorika, Cantus Caterva, Umama eta Et Incarnatus Orkestra. Estiloen eta sentikortasunen baturak berezko nortasun berezia ematen dio taldeari, aztarna uzten duen nortasuna. Haien musika sailkaezina da; izan ere, taldea etengabeko bilaketan aritzen da, baina beren soinuaren esentzia eta nortasuna galdu gabe. Musika-adituek diote beren kantak popetik eta jazzetik datozela eta elektronikaren eta rock progresiboaren lurraldean sartzen direla. Batez ere, honako ezaugarri hauek azpimarratu dituzte kritikariek: proposamenaren kalitatea, zuzenekoaren indarra eta kantetan islatzen

den sentikortasuna, batetik, eta taldearen sendotasuna eta dotorezia, bestetik.

Etxarri Aranatzera etortzekoak dira beren hirugarren diskoa, *Berriro asma nazazu*, aurkeztera. Lan bikaina, taldearen ibilbide sendoa baieztatzen duena.

KIDEAK

Hasier Oleaga: bateria /
Itsaso Etxebeste: baxua /
Juantxo Zeberio: teklatuak /
Beñat Barandiaran: gitarra /
Elene Arandia: ahotsa

4 OR

DE 2 EN BLUES BAND

ARGUEDAS

TINGLAO PLAZA. 21:00

Taldea 1990ean sortu zen, Iruñean, **Miguel Lawyer González** (ahotsa) eta **Michel Montgomery Remón** (gitarra) eskutik, eta, aurrerago, kide berriak bilduziren taldea osatzen laguntzeko. Ehunka kontzertu dira Chicago Blues gure estiloaren berme: ingelesezko eta gaztelaniazko kantak, klasiko handiak eta abesti propioak. 25 urte baino gehiagoz, **De 2 En Blues Band** taldeak musika afroamerikararen kanta handienez gozatu (eta gozarazi) du, batez ere bluesaren eta soularen alorrean. Publikoarekiko komunikazioa, kontaktua eta konplizitatea bilatzea da kontua, hala denen artean gure estiloaren gorespen-festa bat bizi ahal izateko. Bluesa eta soula pasioz bizitzen dituen seikote bat gara, eta hori barneratu egin dugu, gure bizitzaren funtsezko zatia bihurtu arte. Besteak beste, honako artista hauen hasierako gonbidatu gisa jo dugu: Golden Gate Quartet, Pat Travers, Dave Hole, Javier Vargas, Red House (Jeff Espinoza eta Francisco Simón), Honeyboy Hickling... Eta hauekin batera eman ditugu kontzertuak: Lucky Peterson, Mighty Sam McClain, Revólver, Blues Blaster, Big Mama eta Joan Pau Cumellas, Josetxo Goia, Ñaco Goñi y los Bluescavidas, Mr. Hurricane Band, eta beste hainbesterekin musika-jaialdietan, hala nola: Getxoko Bluesa (2001), Elorrioko Jazz eta Bluesa, Aragoiko Ritmo y Blues (2001), Tolosa and Blues (2005 eta 2014), San Isidro Madrilén (2005), Burlatako Udazkena Blues (2007), Heineken Jazzaldia Donostian (2011 eta 2013), Burlatako Blues Jaialdia (2014), Zizurkilgo Blues Jaialdia (2015), Jazzfermin (2012) eta Fite-roko Festival KULTUR jaialdia (2016). Hiru disko ofizial ditugu: *En Directo* (1998), *Bluesoul* (2006) eta *Groovin' The Blues* (2013).



5 LR
ERRONKARI

2 YINKANA
Ezagutu Gayarre
eta bere herria

MIKROERAKUSKETA
Bataglia. Milango
Scalako eskutitza

JULIAN GAYARRE MUSEO-ETXEA

11:30-13:30 / 17:00-19:00

Jarduera bakoitza: 2€ helduak,
12 eta 18 urte artekoak eta jubilatutak 1€,
12 urtetik behera dohainik.

ERRESERBAK:
info@juliangayarre.com
T. 948 47 51 80

KIDEAK

Miguel Lawyer González: ahotsa eta tambourrine / **Alfredo Benjamín Divo Moses:** bateria eta ahotsak / **Mariano Betts Berastegui:** lead gitar / **Patxi O'Clock Ruiz:** harmonika, ahotsak eta gitarra erritmikoa / **Sergio Longfingers Pérez:** bajo / **Alberto Escualo Navascués:** Hammond organoa eta teklatuak. Batzuetan, emanaldi berezietan, haize-sekzioa eta koru-egileak ere izaten ditugu.





5 LR
AGOITZ

Bisita gidatua El Irati S.A.
erakusketa gunera

19:00
Prezioa: 2€ pertsonako
Gutxieneko parte-hartzaileak: 10 pax

ERRESERBAK:
cultura@aoiz.es
T. 637 44 81 07

5 LR

ELUNTZE DANTZA TALDEA AGOITZ

KULTURA ETXEA. 19:00

Eluntze Dantza Taldea Mendillorriin sortua da, eta hemen aurkezten den ikuskizuna beren hamargarren urteurrena dela-eta sortu dute. Dantza eta antzerki amateurraren bidez, sormen-lan honetan murgilduko gara eta gizakia- ren historian zehar ibiliko gara hiri-auzo batera ailegatu arte (gure auzoa ere izan daiteke). Lurrak, animaliek, nekazaritzak, jauregiak eta fabrikak osatzen dute auzolanean sortutako zuzeneko arte-lan hau, eszenografia, argiztape- na eta ikus-entzunezkoak erabiliz. 75 minutuko emanaldiak gure geografian barnako ibilbide bat egiten du, dantza eta musika tradizionalak lan honetarako bereziki elkartuz.

Honako hauek osatzen dute emanaldia: **Eluntze Dantza Taldea**, Mendillorriko Gaiteroak eta Gaztelumendi Mendillorriko Konpartsa.

5 LR

JOKB ERRONKARI

KIROLDEGIA. 20:00

Jokb soinuaren, festaren, energiaren eta koloreen arteko konbinazio paregabea da. Egun talde katalana bira egiten ari da, *Ohana* bere azken diskoa aurkezteko soinu berri batekin: funky festazalea, reggaearekin, poparekin eta rockarekin fusionatuta, baita dantzatzera gonbidatzen duten soinu elektronikoagoekin eta haize fresko eta baikorrek ere. Igoaladako taldeak (Bartzelona) zuzeneko bihurtu du bere proiektua- ren indarguneetako bat; ikuskizun ahaltsu eta eraginkorra da, kanta propioak bertsoekin nahasten dituen, 80ko hamarkadako disko- mu- sikaren klasikoetatik hasi eta egungo kantetara, eta interakzioz eta energiaren betetako emanaldi bat eskaintzen du. **Jokb** udako nahitaezko festa horietako bat da, etenik gabeko zuzeneko ikus- garriarekin, eta koreografiaren beteta. Emanaldi harrigarria da energiaren betetako eszenaratzeko apartekoarekin. Ezin duzu galdut!



6 10

JO & SWISS KNIFE SAN ADRIAN

UDALETXEKO LORATEGIAK. 19:30

Jo & Swiss Knife folk-musika eta musika amerikarra jotzen duen boskote bat da; 2014an abiatu zuten beren ibilaldia eta indarrez sartu ziren tokiko agertokietan *Music From Small Pink* lehen diskoarekin. Orduz gero, ehun kontzertu eta emanalditik gora egin dituzte Europan eta Asian, arrakastaz. 2016an zehar, bira bat egin zuten Europan barna, eta, Espainiaz gain, Frantzian, Belgikan, Alemania eta Suitzan ere jo zuten. 2017ko apirilean, beren bigarren estudio-diskoa argitaratu zuten, *Flea Zirkus* izenekoa; lan horrekin jauzi egin zuten arte eszenikoetara, eta biran Taiwaneraino ere ailegatu; horrez gain, hari esker, beren nortasuna, ideiak eta bandaren adierazgarri den estetika definitu zituzten.

Laz, beren azken lana argitaratu zuten: *Unwanted*. Lan horretan, ahotsa ematen diete baztertuei, amorrua eta haserre-sentimenduak erakusten dituzte egunero ikusten ditugun injustizia sozialen aurka; hala ere, ez dituzte alde batera uzten beren goxotasuna eta sotiltasuna, horiek ere lekua baitute *Unwanted*-en artean. Izan ere, **Jo & Swiss Knife** adituak dira arlo horretan, ahots-harmoniak eta barne-paisaiak lantzen. Azken batean, banda original baten asmo-adierazpen serio bat da, ez bakarrik beren instrumentazio eta eszenaratzearengatik, baina baita beren baliabide poetiko eta literarioaren unibertso agortezinarengatik ere, horiek, amerikar musikaren tradizioan oinarrituta badaude ere, puri-purian baitaude.



11 OR

KOERS

TAFALLA

CENTRO CULTURAL TAFALLA
KULTURGUNEA. 20:30

Prezioa: 3€

Koers-ek erritmo esan nahi du *afrikaansez*, eta horretan ez dira motz gelditzen. *Groove, new wave, dub, pop* eta *rock* estiloak nahasten dira beren oinarriko *reggae*-esentziarekin, eta, horrekin batera, bizitzeko gogoia transmititzen duten letrak dira taldearen berezko ezaugarria. Kalitate handiko comboa da, aretoak betetzen dituen publiko fidelena bibrarazi eta hunkitzen duena taldearen kantak gozatzen eta soinu-bakarrean abesten dituen bitartean.

2018an argitaratutako lehen diskoa, *Unbroken*, irradi eta telebista nagusietan entzun da, eta, estatutan, etorkizun handieneko *reggae*-aren ordezkari nazional bilakatu ditu. Agertoki handietan ere arituak dira, hala nola *Rototom Jaialdian*.

2019. urtearen hasieran, *Des de les Cendres* EPA argitaratu zuten eta bira berria abiatu, non sona handiko jaialdi eta agertokietan jo baitzuten. Azken lan horretan, Dani Macacok eta Sr. Wilsonek ere bat egin dute haien bidaiarekin, eta, haiekin elkarlanean, bihotza jarri dute proiektuan. Azken bidaia horretan, miloi erdi bat bisita izan ditu beren *Vuela* ft. Macaco bideo klipak eta jarraitzaileen erantzun bikaina jaso du. 2020ko udaberrian argitaratuko dute beren bigarren diskoa!

11 OR

THE BLACK LIST SOUL BAND

RIBAFORADA

BARRANCO (ZALDUN TENPLARIOAK KALEA).
22:00

The Black List Soul Band 2015ean sortu zen, Iruñeko eta Gasteizko musikariez osatuta. Soul musikaren historiako guztiko kanta hobereenen zerrenda luzeak osatzen du errepertorioa, bert-sio oso dantzagarrietan, funkaren eta bluesaren ukituekin.

Besteak beste, Joe Cocker, Aretha Franklin, The Blues Brothers, Tina Turner, James Brown eta Stevie Wonder artisten lanak biltzen ditu.

Kontzertuak ez ditugu kanten zerrenda hustzat hartzen, baizik eta hasieratik bukaerara irauten duten ikuskizun osotzat, non egiturak, kanten hautaketa, ordena eta bestelakoak pentsatuta baitaude publikoaren arreta erakartzeko, jendeak kantatzeari eta dantzatzeari utz ez diezaion bi orduz etenik gabe eskaintzen dugun dibertsioan. Iruñeko areto eta tabernetan jotzen dugu maiz, eta Burlatako Blues Jaialdian eta herriko zenbait festatan ere parte hartu dugu; zenbait ekitaldi pribatu ere alaitu ditugu.

KIDEAK

Olga Naya (ahotsa) / **José Rodríguez** (ahotsa) / **Pedro Gómez de Oteo** (teklatua eta musika-zuzendaritza) / **Pablo Elizari** (baxua) / **Eneko Tomasena** (bateria) / **Mikel Rodríguez** (gitarra).



12 LR

IRUÑA JAZZ BIG BAND MEETS

BERA

HERRIKO ETXeko PLAZA. 20:30

Pamplona Jazz/Iruña Jazz taldea gazteen artean jazz musika sustatzeko asmoz jaio zen, baita, profesional kualifikatuei esker, gazteei musikari gisa hazten laguntzeko ere praktika instrumentaletik abiatuta. Gure ibilbide laburrean, zenbait kontzertu, lantegi eta hitzaldi eman ditugu. Nafarroako jazzaren lau belaunaldi beterra aritzen dira eta elkar elikatzen dute, batzuek adinaren esperientzia eta jakinduria ekarriz, eta besteek, gaztetasunaren energia eta bulkada. Lan-ibilbide luzeko musikariak oraindik pres-takuntza-prozesuan dauden musikariek in-ter-aktibitatearekin elkartzen ditu **Iruña Jazz Big Band**ek. Beren ibilbide laburrean, honako leku hauetan aurkeztu ahal izan dute beren proiektua: Nafarroako Arteen Azoka 948 Merkatuan; Civivox Jus La Rochan Pamplona Swing dantza-elkartearekin batera; El Bardo Escaldaon, Count Basie-ren omenaldian, Ramón Cardorekin batera; Zangozan Ilja Reijn-goud-en musikariarekin batera. Azken artista horrek talde ospetsuen moldaketak egiten ditu (hala nola WDR Big Band), Grammy Latino sari bat ere badu, eta beste abeslari ospetsu batzuekin ere aritu da, esaterako Christmas Songs lanean Deborah Carter kantari estatubatuarrekin, eta Jazz Urtarrijazz 2020 Zikloan, Marta Marín abeslariarekin. Haien errepertorioaren bidez, bidaia bat eginen dugu, swingen garaitik gure arora arte, bidai horretan artista klasikoak aintzat hartuta, besteak beste Count Basie, Duke Ellington, George Gershwin, Ray Charles, Count Basie, Glenn Miller, Buddy Rich eta Ilja Reijn-goud. Oraingo honetan, **Marta Marín**-en (nazioarteko jazzen ahots handienetako bat) ahotsaz gozatzeko aukera izanen dugu.

12



12 LR
LEITZA

Bisita gidatua Peru HARRIRA

GORRITTENEA BASERRIA

11:30

Prezioa: 4€ helduak, 3€ haurrak

Gutxieneko parte-hartzaileak: 10 pax

ERRESERBAK:

peruharri@hotmail.com

T. 659 70 10 45

12



12_{LR}

ROLAND & LOOP ABESTIAK

LEITZA

PLAZA. 20:00

Rolan Garcés (**Rolan & Loop Abestiak**) rock&rollaren mundutik dator, non lruñeko zenbait taldetako kide izan baita. Egun, berriz, folkaren, countryaren edo bluesaren lurraldean sartu da, euskaraz abestuz.

Melodia indartsuak, baina instrumentazio sinplearekin, protagonismoa batez ere ahotsari ematen saiatzeko. Horretarako, Rolanek zenbait pertsona izan ditu ondoan laguntzaile, bai letretan, bai moldaketetan. Euskarazko kantetan, lagun batzuek testuak utzi dizkiote, eta, moldaketetan, Oskar Benasen maisutasuna azpimarratu behar da, ekoizpenaz gain instrumentazioaren zati handi bat grabatzeko ardura hartu baitu.

Gor Discos etxearekin argitaratu zuen 2018ko irailean bere lehen lana: **Rolan & Loop Abestiak**; Loop pedalari aipamen berezia egin dio izenburuarekin.

Diskoaren kanten artean, *Askatasun dantza* nabarmentzen dugu, non Rolanek erregistro sako-nenetatik garaienetara eramaten baikaitu.

13_{IG}

KORRONTZI

GARES

PLAZA. 19:30

Korrontzi folk taldea (Euskadi, 2004) Agus Barandiaran trikitixa-jotzaileak sortu zuen. Taldea sortzean, honako hau zuen helburu: euskal musika herrikoiari eta bere lurraldeko antzinako soinu tradizionalei itxura modernoago eta garaikideagoa ematea, baina beti trikitixa eta beste instrumentu tradizionalak (txalaparta, alboka...) oinarri hartuta, eta bere lehen maisu Rufino Artola trikitilariengandik (1909-1996) jasotako tradizioa erabat errespetatuz.

Soinu berriak lortzeko, musika-estilo modernoagoez inguratu zen eta beste musika-tresna batzuen laguntza eta elkarlana izan zuen, adibidez mandolinarena, baxu elektrikoarena, kontra-baxuarena eta perkusioena.

Urte hauetan zehar, **Korrontzik** bere kultura, hizkuntza, dantza eta musika eraman ditu mundu osoan zehar, jaialdi handietan joz eta herrialde ugari bisitatuz, hala nola Belgika, AEB, Errumania, Cabo Verde, Irlanda, Brasil, Malaysia, Eskozia, Holanda, Grezia, Italia, Kanada, Hungaria, Portugal, Ingalaterra, Zipre, Maroko, Alemania, Kroazia, Eslovenia, Austria, Txekiar Errepublikak, Reunion Uhartera, Frantzia... Eta sari eta aipamen ugari jaso ditu, bestea beste: *World Music Charts* 2014an, 2015ean eta 2016an, *Top100 Roots Music Report* (2015), *Womex Official Selection* (2014), eta, gainera, *Mejor banda europea*, *Eurofolk* (2009) eta *Penintsulako talderik hoberena*, *Navelgas* (2007).



Pedro Salaberri

BIDEAK



BIDEAK

Pedro Salaberri

Paisaiaren erdian irudi batek oroitu, bizi eta itxaron egiten du

Ezagutzen dudan gozagarririk onenetako bat paseo lasaiak ematea da, zuhaitz eta soroen arteko bideetan edo landaretzan barna urruneko mendi eta ibarrak antzematen diren basoetan.

Paseo horietan, hotzak, beroak edo euriak momentu horretan buruan dudana atzean utzi, eta kosmoseko planeta txiki batean bizi naizela eta harekin ongi moldatzea niretzat ona dela kontatu ahal didate.

Nire estudioan, betiereko itzulera lortu nahian, islatuko ditudan irudiz betetzen naute paseo horiek.

Nire lehenengo erakusketan *paisaiaren erdian irudi batek oroitu, bizi eta itxaron egiten du* idatzi nuen, eta badirudi lehenengo aldi hura dela berriro.

Pedro Salaberri
2020KO MAIATZA

BEZTIKOJAUREGIA

UZTAILAREN 18TIK ABUZTUAREN 30ERA

ORDUTEGIA

10:00-13:30 eta 16:00-19:00,
astelehenetik igandera

